


EUSKAL HIZTEGI HISTORIKO-ETIMOLOGIKOA (EHHE-200)

Lantaldea:

Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Iñaki Segurola

Laguntzaileak:

Gabriel Fraile, Koro Segurola



EUSKALTZAINDIA
2019

LIBURUAREN AURKIBIDEA

IKURRAK	xi
LABURDURA OROKORRAK	xi
EUSKALTZAINBURUAREN AITZINSOLASA	xiii
HITZAURREA	xv
1. Aurkezpena	xv
2. Euskal etimologiaren oinarriez	xxii
2.1. Etimologia zeri deritzo?	xxii
2.2. Euskal etimologiaren historiaurrea	xxiv
2.3. <i>Excursusa</i> . Euskararen ahaidetasun genetikoekiko hipotesiez	xxvii
2.4. Eranskina. Zenbait etimologia berezi	xxxvi
3. Mitxelena paradigma	xxxviii
3.1. Maileguetarik AEren berreraiketa klasikorantz	xxxviii
3.2. Aurrekariak berreraiketan eta etimologian	xli
3.3. Mitxelenaren filologia	xlvi
3.4. Mitxelenak berreraiki aitzineuskararen sistema	xlvi
3.5. Mitxelenaren etimologia-jarduna	xlviii
4. Lehen <i>excursusa</i> : hiru bilduma etimologiko	li
4.1. Agud-Tovar	li
4.2. Morvan	lii
4.3. Trask	lv
5. Bide berriak berreraiketan eta etimologian: I. Forma Kanonikoa eta Etimologia	lvii
5.1. Zergatik aldatu Mitxelena-paradigma	lvii
5.2. Ondare zaharreko hitzen ikerketa lehenetsi beharra	lix
5.3. Aurrekariak euskal erroaren azterketan	lx
5.4. Lehen urratsak	lxii
5.5. Forma kanonikoa eta etimologia formala	lxiii
6. Bide berriak berreraiketan eta etimologian: II. Gramatikalizazioa, lexikalizazioa eta etimologia	lxvi
6.1. Gramatikalizazioaz eta etimologiaz	lxvi
6.2. Lexikalizazioaz	lxviii
6.3. Morfemen forma kanonikoa eta gramatikalizazioa	lxix

7. Bigarren <i>excursusa</i> : Mitxelenaren paradigmaren hedadurak	lxxi
7.1. Hasperena, etimologia eta berreraiketa	lxxi
7.2. Martineten Legea: * <i>Th-</i> > <i>h-</i>	lxxiii
7.3. <i>l, n</i> ondoko herskariak eta horren inplikazioak	lxxv
7.4. Sistema fonologiko zaharrago baten aztarnak	lxxvi
8. Bide berriak berreraiketan eta etimologian: III. Hitz-familiak	lxxix
8.1. Familia bila	lxxix
8.2. Hitz-familiak eta mailegientzako txertoak	lxxxii
8.3. Hitz-familien tamaina eta maileguak	lxxxiii
9. Etimologia eta berreraiketa: etimologia konparatua eta motibazioa	lxxxiii
9.1. <i>Ahardi, ardi, idi, zaldi</i>	lxxxiv
9.2. <i>Ipurdi</i>	lxxxv
9.3. <i>lau</i> ‘*labur’ eta <i>zortzi</i> ‘*zorrotz’	lxxxv
9.4. <i>Sei</i> ‘*seni’ eta <i>zazpi</i> ‘5 + 2’	lxxxvi
9.5. <i>bide</i> ₁ eta <i>bide</i> ₂	lxxxvii
10. Filologia berria euskal lexikoaren historiarako: I. Mitxelena ondoko filologiaz	lxxxviii
11. Filologia berria euskal lexikoaren historiarako: II. Hirugarren <i>excursusa</i> . Kronologiaz eta Periodizazioaz	xcix
11.1. Periodizazioaz	xcix
11.2. Geruzak euskararen historian: zenbait ohar	cv
11.3. Protohistoria <i>EHHEn</i>	cx
12. Nola egin etimologia gehiago eta hobeak	cxiii
12.1. Etimologiak egiteko oinarritzko arauak	cxiii
12.2. Zenbait etimo finduak	cxv
12.3. Partikula baten etimologia egokiagoa: <i>omen</i>	cxviii
12.4. Paradigma jokatu eta jokatuabeak berreraikiak	cxix
12.5. Erro-ereduen etimologiarako: (C)VCV	cxxi
12.6. Kognatuak ugaltzeko eta hitz-familiak zabaltzeko	cxxii
13. Mikroegitura: hiztegiko sarreraren antolamendua	cxxv
14. Makroegitura: <i>EHHE</i> ren egitura modularraz	cxxxii
14.1. Abiapuntu egokiaren bila	cxxxii
14.2. Eredu berri baten beharra	cxxxii
14.3. Egitura modularren alde	cxxxiv
14.4. Makroegituraren aldaketaz eta egungo egoeraz	cxxxv
14.5. Oharra makroegituraz eta bilakabide fonotaktikoaz	cxxxvi
15. Hitzatzea	cxxxvii

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA	cxli
1. Iturriak	cxliii
1.1. Euskal testuak	cxliii
1.1.1. <i>Orotariko Euskal Hiztegiaren</i> iturriak	cxliii
1.1.2. Bildumetan, aldizkarietan eta bestela argitaraturiko testuen laburdurak	cxlviii
1.2. Erdi Aroko iturriak eta onomastika	cli
2. Bibliografia orokorra	clxvii
2.1. Laburdurak	clxvii
2.2. Ikerketak	clxx
ERANSKINAK	ccvii
I. ERANSKINA: Zerrenda kronologikoa: hitzen lehen agerraldiak	ccix
II. ERANSKINA: Hiztegiaren egitura: familiak eta aldaerak	ccxxxvii
HIZTEGIA	ccxci
A	1
B	63
D	127
E	133
F	217
G	221
H	285
I	407
J	427
K	431
L	439
M	461
N	477
O	487
P	503
S	509
T	545
U	553
X	563
Z	565

AURKIBIDEAK	635
I. Etimologiaren zerrenda	637
1. Ondare zaharreko hitzak	637
1.1. Akitanierazkoak	637
1.2. Ondare zaharreko hitzen etimologiak	637
2. Beste hizkuntzetako hitzak	654
II. Beste hizkuntzetako paraleloak	659
III. Onomastika	669
Hitzen aurkibide orokorra	701

EUSKALTZAINBURUAREN AITZINSOLASA

Urte franko joanak dira Antonio Tovar eta Manuel Agud euskalariak *Diccionario etimológico vasco* delakoaren lehen emaitza argitaratu zutenetik. Izan ere, ez zen espero izatekoa osorik argitaratu gabe geratu zen aspaldiko ahalegin hura, alegia, euskararen etimologiak oinarri sendoetan sustraitu beharra, bere eskutik hartuko zuela Euskaltzaindiak, euskararen Akademiak, horretarako abiarazi baitzuen egitasmo berezia eta berezia, euskararen etimologiei eta historiari ekarpen esanguratsua egin nahian.

Ez zituen, ez, orduko hartan, Tovar eta Agud bikoteak, egun ditugun baliabide eta molde irmoak. Ments ziren —eta gaur, aldiz, badira— corpus zabalak, hala nola *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Euskal Corpus Onomastikoa*, Euskaltzaindiak urteetan garatu dituenak. Hutsuneak ere baziren orduko hartan, gaur egun abiadura bizian doan euskalarien doktrinaren aldetik, euskararen bila-kaera historikoaren arloan.

Hortaz, Joseba Lakarra Andrinua euskaltzain osoak eta unibertsitateko irakasleak eta berak antolaturiko ikerketa taldeak erdietsi dute euskararen etimologia eta historia egoki estekatu eta argitaratu ekartzea. Hona, beraz, lehen saioa, *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, edukiaren aldetik mugatua, baina geroko baterako hasiera dakarrena, ondoz ondo hedatzeko euskararen diakroniaren eremuan, gune erabakigarri hau.

Metodologiak, hitzen familiak, erroak eta, oro har, egileek Euskaltzaindiaren barnean egin duten lan kolektibo honi emandako ikuspegiak bermatzen du argitalpen honek dituen estandar nabarmenak. Begien bistakoa da euskararen etimologiak eztabaidatsuak izan direla eta badirela, are gehiago aintzat harturik hizkuntzak ahaide ezagunik ez duela. Horretan ere, argitalpen hau guztiz lagungarri izan daiteke osterantzeko osagaiak iritzien plazara ekartzeko.

Horixe du helburu Euskaltzaindiak ikerlan eta argitalpen honekin. Horretarako ondu zuen, aurre-rago esan bezalaxe eta urte batzuk direla jada, halako egitasmoa, goi mailako ikerketa esparruan kokatzen dena. Izan bedi, beraz, honako hau, Euskaltzaindiaren proposamena, euskararentzat nahiz euskal gizartearentzat.

Bestelakoa dator orain, hots, lanaren edukian sakontzea eta zabalkuntzak egitea, beste hizkuntzetara ere eramatea eta, batik bat, teknologia berrien bidez eta digitalizazio garaian, dimentsio berria ematea egindakoari, Euskaltzaindiak berak dituen gainontzeko baliabideekin lotzeko. Horrela, hitz horiek kontsultatzeko sarrera erraza eta eguneratuarekin batera egundoko bizitasuna emango zaio honi, euskararen ikusmolde diakroniko zein sinkronikotik abiatuta.

Argitalpen honekin Euskaltzaindiak pauso bat aurrera ematen du euskararen sustraiak argitzeko. Horretarako bidea eman duten egileei zorionak eta goresmenak eta kuraia on egitasmo honetan lanean jarraitzeko, horixe baita, zernahi gisaz ere, Euskaltzaindiaren zalantzarik gabeko konpromisoa

Ekin eta jarrai!

Andrés Urrutia
Euskaltzainburua